



## **Idazkaritza-Kontuhartzaitza**

**2024/04/30ean EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURA.**

**SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 30/04/2024.**

### **BERTARATUAK- ASISTENTES**

#### **Alkate-Udalburua**

Edorta Zubizarreta Alegria

#### **Zinegotziak**

Edorta Barandiaran García  
Xabier Uriarte Iñurrategi  
Irati Iglesias Pozo  
Mikel Luengo Gabarain  
Dorleta Sologaistoa Aguiriano  
Maite Uribe Beristain  
Antonio Regaño Sajeras  
Josu Ezkurdia Santamaria

#### **Idazkaria**

#### **EDURNE ITURBE LASKURAIN**

Eskoriatzan, 2024ko apirilaren 30ean, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Edorta Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, ezohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira eterri Alaitz Orueta Arrese eta Puri Regidor Varela.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 30 de abril de 2024, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Edorta Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten Alaitz Orueta Arrese y Puri Regidor Varela.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAAEXYZV.bCJv>

**2024/04/30  
Ez Ohiko Osoko bilkura  
Pleno Extraordinaria**

## **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

2025eko martxoaren 27an egindako osoko bilkurako akta onartu da.

## **2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK.**

2025eko apirilaren 15era arte Alkateak hartutako erabakien berri eman da.

Berariaz eman da 4., 5. eta 7. kreditu aldaketa espedienteak onartzeko Alkate erabakien berri.

Era berean, eta gaiaren garrantzi ekonomikoa kontuan hartuta, gaur emandako 676/2025 erabakiaren berri eman da. Erabaki horren bidez, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako 2. zenbakiko Epaitegiaren ardura den 125/2025 administrazioarekiko auzi-errekursoan Udala alderdi demandatu gisa aurkeztea erabaki da. Administrazioarekiko auzi-errekurso hori ACCIONA GREEN ENERGY DEVELOPMENTS SL merkataritza-sozietateak jarri du 2024ko abenduaren 18ko 1934. zenbakiko Alkate erabakiaren aurka jarritako berraztertzeko errekursoa ezesten zuen Alkatetzak 2025eko otsailaren 14an emandako 229/2025 erabakiaren aurka. 1934/24 Alkate erabakiak ezetsi egin zuen bide publikoko lurra, hegalkina eta lur azpiaren erabilera publiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasaren 2021eko ekitaldiko autolikidazioak (78.516,04 eurokoak) zuzentzeko eskaera.

Idazkariak errekurso horren inguruabarren berri eman du, baita ematen den epaiak Udalaren finantza-egoeran izan dezakeen eraginaren berri ere. Epaia Udalaren aurkakoa bada, eragin negatiboa izango luke bai gerakinean, bai 2025eko aurrekontuko diru-sarreren aurreikuspenetan, bai gaur Osoko Bilkurari aurkeztuko zaion ekonomia- eta finantza-planaren (EFP) aurreikuspenetan. Soberakin erabilgarria aurreikusteko orduan, zuhurtziagatik, energia elektrikoa eta gasa merkaturatzen duten enpresek azken 4 urteetan izandako diru-sarrerak (723.797 euro) itzultzeko balizko betebeharra kontuan hartu bada ere, itzultze horrek aurrekontu-egonkortasuna eta, ondorioz, ekonomia- eta finantza-plana ez betetzea ekarriko luke. Era berean, ohartarazten da indarrean dagoen aurrekontuan, borobilduta, 157.000 euroko aurreikuspena jaso dela bide publikoaren lurzoruaren, hegalkinaren eta zorupearen erabilera publiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasagatiko diru-sarrera gisa; baina, diru hori ez litzatekeela jasoko administrazioarekiko auzien epaitegiak errekursoa baietsiko balu.

2025-2026 Ekonomia- eta Finantza-Planean izan dezakeen eraginari dagokionez, alkateak inolako aurreikuspenik ez jasotzea planteatu du, ez baitakigu zein izango den epaiaren zentzua errekursoaren aurrean, ezta noiz emango den ere, eta normalena denboran atzeratzea **izango baita**.

## **3.- LANPOSTUEN DESKRIPZIO-FITXAK ONARTZEA.**

Udal honetako langileak eta zerbitzuak egungo beharrei erantzuteko eta etorkizuneko erronkei erantzuteko egokiak izan behar dira.

2024/04/30

**Ez Ohiko Osoko bilkura**  
Pleno Extraordinaria

Epe laburrean udal langile askok erretiroa hartuko dutela-eta, ATE PERSONAS SL enpresari eskatu zitzaiion azterketa bat egiteko eta neurriak proposatzeko langileen egituran eta eginkizunetan hobekuntzak ezarri ahal izateko Udalaren antolaketa-egitura egungo zerbitzu-eskrietara egokitzeo.

ATE PERSONAS SL enpresak bere lana eginda, Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzailean ondorengo dokumentazio aurkeztu zen:

- 2024-2030 ALDIRAKO ORGANIGRAMA PROPOSAMENA
- LANPOSTUEN DESKRIBAPEN-FITXAK

Lanpostuen deskribapen-fitxen proposamena azertuta, Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako EH BILDUko 6 zinegotziek alde bozkatuta, eta bertaratutako EAJ/PNVko 3 zinegotziak kontra bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** ATE PERSONAS SL-k lanpostu bakoitzari buruz egindako deskribapen- eta funtzio-fitxak onartzea. Fitxak espedientelean jasota daude, eta hemen kopiatutzat jotzen dira ondorio guztieta rako.

- BOTO AZALPENA:

Josu Ezkundiak esan du gai-zerrendako gai hau eta hurrengoa oso presaka planteatu direla eta garantzi handikoak direla; eta beraz, bere taldeak aurka bozkatuko duela bietan.

#### **4.- 2025. URTEKO LANPOSTU ZERRENDAREN ETA PLANTILLA ORGANIKOAREN ALDAKETA.**

2025eko apirilaren 15ean, Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak jaso zuen 2024-2030 aldirako Udal langileen organigramari buruz egiten den proposamena, zerbitzuen egungo beharretara eta epe laburrean etorriko diren erronketara egokitzeo udalaren antolaketa-egitura.

Lanpostu zerrendak ekonomiaren eta antolamenduaren errealtitatearen irudi fidela izan behar du, eta administrazio onaren printzipoak erakundea etengabe egokitzea eskatzen du. Beraz, lehen aipatutako dokumentuan aurreikusitakoa betez, batzorde informatzaileak proposamena egin du 2025. urteko LPZn honako aldaketa hauek sartzeko:

##### **LEHENENGO ALDAKETA:**

Alkatetzaren zuzendaritzapean, udal-zerbitzuak honako sei administrazio-arlo hauetan biltzea:

- IDAZKARITZA-KONTUHARTZAIETZA arloa.
- HIRIGINTZA, INGURUMENA ETA HERRIKO MANTENTZE-LANAK arloa.
- ONGIZATEA arloa.
- KULTURA ETA EUSKARA arloa.
- BARNE ZERBITZUEN arloa.
- HERRITARREN SEGURTASUNA arloa.

- TOKIKO GARAPENA arloa.

Aurreko proposamenak honako aldaketa hauek dakartzan:

- 1- Hirigintzako eta Obra eta Zerbitzuetako administrazio-unitateetako langileak eta Ibarraundi Museoko Ingurumen Garapeneko teknikaria (A-2) HIRIGINTZA, INGURUMEN ETA HERRIKO MANTENTZE-LANAK arloari atxikitzea.
- 2- Egungo Gizarte Zerbitzuen eta Gazteriaren arloak berregituratzea, eta "ONGIZATEA ARLOA" bezala berrizendatzea. Gazteriako teknikari lanpostua (A2) Ongizatea arloari atxikitzea.
- 3- Kultura eta Euskara unitateak arlo bakar batean biltzea.
- 4- Toki Garapeneko Teknikariaren (A2) lanpostua "Museoa eta Turismoa" administrazio-unitatetik "Tokiko Garapena Arloa" izeneko eremu sortu berrira berratxitzea.
- 5- "Museoa eta Turismoa" unitatea kentzea.

#### BIGARREN ALDAKETA:

Gazteria teknikariaren (A2) lanaldia (% 50etik % 100era) eta eginkizunak egokitzea, eta lanpostuaren funtzioen artean berdintasun-politikak garatzearenak gehitzea, betiere, titularrak emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko prestakuntza-ikastaro bat hasi duela egiaztago ondoren. Ikastaroa 150 ordukoa izan beharko da gutxienez, eta organo ofizial batek (unibertsitateak edo administrazio publikoak) ziurtatutakoa.

#### HIRUGARREN ALDAKETA:

LIBURUTEGIKO ARDURADUNA (A2). Erretiroagatiko lanpostu hutsa, lanaldia % 100era luzatzea. Barne-sustapen bidez sartzeko txanda.

#### LAUGARREN ALDAKETA:

KULTURAKO LAGUNTZALEA (c1). Lanpostu berria.

Era berean, 2025eko otsailaren 18ko Alkate erabakiz, H@Zi-Idazkaritza administrari lanpostua betetzen zuen funtzionarioa eszedenzia-egoeran deklaratu zen, lanpostua gorde gabe, 2025eko martxoaren 2tik aurrerako ondorioekin; eta beraz, egun horretatik aurrera PLAZA HORI hutsik dago.

Aldaketa proposamenak udal aurrekontuarekin batera onartutako plantilla organikoa aldatzea dakin, eta beraz, udal aurrekontua onartzeko egin beharreko tramite berak egin behar dira horretarako ere, horrela eskatzen baitu Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen Testu Bategina onartu zuen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzazko Errege Dekretuko 126.3 artikuluak.

Lanpostu zerrenda onartzea eta, ondorioz, baita bertan egindako aldaketak ere, Udalbatzarrari dagokio, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 22.2.i) artikulan ezarritakoaren arabera, eta eskumen hori ezin da eskuordetu.

Horiek horrela, eta Osoko bilkuraren gai-zerrendan sartu aurretik, expedientea Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak aztertzeko jarri zela kontuan izanik, besteak beste Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20.1.c) artikuluak hala eskatzen duelako, Udalbatzarrak, EH BILDUko 6 zinegotziak alde bozkatuta, eta EAJ/PNVko 3 zinegotziak kontra bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

**2024/04/30**  
**Ez Ohiko Osoko bilkura**  
 Pleno Extraordinaria

**LEHENENGOA.-** Plantilla organikoaren eta lanpostu zerrendaren aldaketa hasiera batean onartzea eranskinean jasotako moduan.

"Kulturako laguntzaile" lanpostua lanpostu zerrenda aldatutakoan sortuko da, behin lanpostuak aurrekontu-zuzkidura izandakoan eta dagokion euskara-eskakizuna esleitzen zaionean.

**BIGARRENA.-** Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea 15 egun baliodunez interesdunek azterzeko aukera izan dezaten eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jartzeko Udalbatzarrari. Era berean, Udalaren iragarki oholean eta webgunean ere argitaratu da.

Erabakia behin betiko onartutzat joko da aipatutako epean ez bada erreklamaziorik jartzen; eta ondorio horietarako, Alkateak behin betikotzat joko du erabakia eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko du.

erreklamaziorik aurkeztuz gero, horiek onartzeko edo baztertzeko eta plantilla organikoaren eta lanpostu zerrendaren aldaketak behin betiko onartzeko proposamena egingo zaio Udalbatzarrari hilabeteko epean.

## **5.- EKONOMIA ETA FINANTZA PLANA ONARTZEA 2025-2026 ALDIRAKO**

2024ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa onartu zenean, udal kontuhartzaitzak jakinarazi zuen ez zituela betetzen aurrekontu-egonkortasunaren helburua (diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz) eta gastuaren araua.

Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duen otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera, udalbatzarrak aldi baterako proiekzioa izango duen ekonomia- eta finantza-plan bat onartu behar du zerga-arauak aurten eta datorren urtean betetzeko.

Udal ekonomia zerbitzuek egindako ekonomia eta finantza planaren projektua aztertu da.

Udal idazkariak egindako txostena aztertu da.

Udal kontuhartzaitzak egindako txostena aztertu da.

Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, bertaratutako EH BILDUko 6 zinegotziek alde bozkatuta eta bertaratutako EAJ/PNVko 3 zinegotziak kontra bozkatuta , honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** 2025/2026 ekitaldirako udalaren ekonomia- eta finantza-plana onartzea. Plan hori zerbitzu ekonomikoek egin zuten eta espedientean jasota dago.

**BIGARRENA.-** Ekonomia eta finantza plana Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea, jarraipena egin diezaiotan.

**HIRUGARRENA.-** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duen otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauaren 5 bis.3 in fine artikuluan xedatutakoaren arabera.

## **BOTO AZALPENA:**

2024/04/30  
**Ez Ohiko Osoko bilkura**  
Pleno Extraordinaria

Josu Ezkurdiak adierazi du bere garaian bere taldeak aurrekontuen aurka bozkatu zuela aurreikusitako inbertsio maila oso baxua zelako, eta bere taldeak uste duela Udalak inbertsioen aldeko apustua egin behar duela Eskoriatza aurrera ateratzeko, eta aurkezten den Planarekin ezin izango dela inbertsio askorik egin. Amaitu du esanez horregatik bere taldeak Planaren aurka bozkatuko duela.

#### **6.- GALDE-ESKEAK.**

Maite Uribek jakinarazi du bizilagun bat kexatu egin zaiola, antza denez, Atxorrotx inguruan ez delako belarra moztu eta txukundu, kontuan izanik datorren igandean Atxorrotx eguna ospatuko dela.

Alkateak jakinarazi dio gaur goizean bertan egin direla lan horiek.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:14an amaitutztat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

2024/04/30

**Ez Ohiko Osoko bilkura**  
Pleno Extraordinaria

## **1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.**

Por encontrar conforme es aprobada el acta de la sesión celebrada en fecha 27 de marzo de 2025.

## **2.- COMUNICACIONES DE ALCALDÍA.**

Se da cuenta de las resoluciones dictadas hasta el día 15 de abril de 2025.

De forma expresa se da cuenta de las resoluciones por las que se aprueban los expedientes de modificación de créditos Nº 4, Nº 5 y Nº 7.

A su vez, y dada la trascendencia económica del asunto, se da cuenta también de forma expresa de la resolución Nº 676/2025 dictada el día de hoy y por la que se acuerda que el Ayuntamiento se persone como parte demandada en el Recurso Contencioso-Administrativo 125/2025, que conoce el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 2 de Donostia. Ese recurso contencioso ha sido interpuesto por la mercantil ACCIONA GREEN ENERGY DEVELOPMENTS SL, frente a la Resolución 229/2025 dictada por la Alcaldía del Ayuntamiento de Eskoriatza, de 14 de febrero de 2025, que desestima el recurso de reposición interpuesto contra la Resolución de la Alcaldía 1934, de 18 de diciembre de 2024. En esta última resolución se desestimaba la solicitud de rectificación de las autoliquidaciones de la Tasa por uso público o aprovechamiento especial del suelo, vuelo y subsuelo de la vía pública correspondientes al ejercicio 2021, por el importe total de 78.516,04 euros.

La secretaría informa sobre las circunstancias que concurren en relación a dicho recurso , así como sobre la incidencia que puede tener en la situación financiera del Ayuntamiento la sentencia que se dicte. Para el caso de que la sentencia sea contraria al Ayuntamiento, habría una incidencia negativa tanto en el remanente como en la previsiones de ingresos del presupuesto 2025 y en las del plan económico financiero (PEF) que hoy se presente al Pleno. Si bien a la hora de prever el remanente disponible, por prudencia, se ha tenido en cuenta la posible obligación de devolver los ingresos habidos en los 4 últimos años por parte de las comercializadoras de energía eléctrica y gas, eso es 723. 797 euros, dicha devolución conllevaría a un incumplimiento de la estabilidad presupuestaria y en consecuencia del PEF. También se advierte que en el presupuesto vigente se ha contemplado, en números redondos, una previsión de 157.000 euros en concepto de ingreso por Tasa por uso público o aprovechamiento especial del suelo, vuelo y subsuelo de la vía pública, cantidad que se dejaría de ingresar si el recurso fuese estimado por el juzgado de contencioso-administrativo.

En relación a la incidencia que pueda tener en el Plan Económico Financiero 2025-2026, el Alcalde plantea no contemplar previsión alguna dado que no se sabe cuál va a ser el sentido de la sentencia ante el recurso ni tampoco cuándo se va a dictar la misma, siendo lo más normal que se demore en el tiempo.

## **3.- APROBACIÓN DE LAS FICHAS DESCRIPTIVAS DE LOS PUESTOS DE TRABAJO**

2024/04/30

Ez Ohiko Osoko bilkura  
Pleno Extraordinaria

Considerando que tanto el personal como los servicios de este Ayuntamiento han de ser los adecuados para atender las necesidades presentes y dar respuesta a los retos futuros.

Atendiendo que es importante el número de jubilaciones que se prevé a corto plazo entre los empleados/as municipales, se encargó a la empresa ATE PERSONAS SL. la realización de un estudio y propuesta de medidas que permitan implementar mejoras en la estructura y desarrollo de las funciones del personal para adecuar la estructura organizativa del Ayuntamiento a las demandas actuales de servicio.

Realizado el trabajo por parte de ATE PERSONAS SL., en la Comisión Informativa de Organización y Hacienda se presentó la siguiente documentación:

- PROPUESTA ORGANIGRAMA PARA PERÍODO 2024-2030
- FICHAS DESCRIPTIVAS DE LOS PUESTOS

Examinada la propuesta de las fichas descriptivas de los puesto de trabajo, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Organización y Hacienda y con el voto favorable de los 6 concejales presentes de EH BILDU y el voto en contra de los 3 concejales presentes de EAJ/PNV, el Pleno ACUERDA:

**PRIMERO.-** Aprobar las fichas descriptivas y de funciones de cada puesto de trabajo, elaborado por ATE PERSONAS SL, que consta en el expediente y que se entiende aquí por reproducidas a todos sus efectos.

- EXPLICACION DE VOTO:

Josu Ezkurdia dice que tanto este asunto del orden del día como el siguiente se han planteado muy precipitadamente y son de gran importancia, por lo que su grupo votará en contra en ambos.

#### **4.- MODIFICACION DE LA PLANTILLA Y RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO DE 2025.**

Con fecha 15 de abril de 2025 la Comisión Informativa de Organización y Hacienda ha tomado cuenta de la propuesta que para el periodo 2024-2030 se hace en relación al organigrama del personal del Ayuntamiento en aras a adecuar la estructura organizativa municipal a las necesidades actuales de los servicios y a los retos futuros que se presentan a corto plazo.

Resultando que la relación de puestos de trabajo ha de ser una imagen fiel de la realidad económica y organizativa y que el principio de buena administración exige una adaptación continua de la organización, en cumplimiento de las previsiones del documento anteriormente citado, desde la comisión informativa se eleva propuesta de introducir en la RPT del año 2025 las siguientes modificaciones:

##### **PRIMERA MODIFICACIÓN:**

Bajo la dirección de la Alcaldía, agrupar los servicios municipales en las siguientes seis Áreas administrativas:

- Área de SECRETARÍA-INTERVENCIÓN.

**2024/04/30  
Ez Ohiko Osoko bilkura  
Pleno Extraordinaria**

- Área de URBANISMO, MEDIO AMBIENTE Y MANTENIMIENTO URBANO.
- Área de BIENESTAR.
- Área de CULTURA Y EUSKERA.
- Área de SERVICIOS INTERNOS.
- Área de SEGURIDAD CIUDADANA.
- Área de *DESARROLLO LOCAL*.

La anterior propuesta conlleva los siguientes cambios:

- 1- Adscripción al área de URBANISMO, MEDIO AMBIENTE Y MANTENIMIENTO URBANO el personal de las unidades administrativas de *Urbanismo y de Obras y servicios* y el Técnico de Desarrollo Ambiental (A-2) procedente del *Museo Ibarraundi*.
- 2- Reestructuración de las actuales áreas de Servicios sociales y de Juventud, y su redenominación como “ÁREA DE BIENESTAR”. Adscripción del puesto Técnico de Juventud (A2) al Área de Bienestar.
- 3- Agrupación en una sola Área de las unidades de Cultura y Euskera.
- 4- Readscripción del puesto de Técnico de Desarrollo Local (A2) desde la unidad administrativa “Museo y Turismo” a un área de nueva creación que se denomine “Área de Desarrollo Local”
- 5- Eliminación de la unidad de “Museo y Turismo”.

### SEGUNDA MODIFICACIÓN

Adaptación de jornada (del 50% al 100%) y funciones del puesto de Técnico de juventud (A2) a fin integrar como propias del puesto funciones en materia de desarrollo de políticas de igualdad una vez haya acreditado la titular el inicio de un curso de formación en materia de igualdad de mujeres y hombre de al menos 150 horas de duración y certificado por órgano oficial (universidad o administración pública)

### TERCERA MODIFICACIÓN

RESPONSABLE DE BIBLIOTECA (A2). Vacante por jubilación , ampliar la jornada al 100%. Turno de acceso por promoción interna.

### CUARTA MODIFICACIÓN

AYUDANTE DE CULTURA (c1). Puesto de nueva creación

A su vez se da la circunstancia de que por Resolución de la Alcaldía de fecha 18 de febrero de 2025 , se declaró, con efectos del día 2 de marzo de 2025, a la funcionaria que ocupaba la plaza de Administrativo/a de H@Zi-Secretaría en situación de excedencia sin reserva de puesto de trabajo, por lo que a partir de dicha fecha esa plaza está vacante.

Considerando que la propuesta de modificación supone también modificación de la plantilla orgánica aprobada junto al Presupuesto municipal, debiendo seguirse por tanto los mismos trámites que para la aprobación del Presupuesto municipal, por así exigirlo el artículo 126.3 del Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de las Disposiciones Legales vigentes en materia de Régimen Local.

**2024/04/30**  
**Ez Ohiko Osoko bilkura**  
 Pleno Extraordinaria

Considerando que la aprobación de la plantilla y de la relación de puestos de trabajo y, consecuentemente, de sus modificaciones, corresponde al Ayuntamiento Pleno, en virtud de lo previsto en el artículo 22.2.i) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local -LRBRL-, sin que tal atribución pueda ser objeto de delegación.

Considerando que, con carácter previo a su inclusión en el orden del día del pleno, el expediente se ha sometido a estudio de la Comisión Informativa de Organización y Hacienda, por así exigirlo, entre otros, el artículo 20.1.c) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, el Pleno, de conformidad con la propuesta elevada y con el voto a favor de los 6 concejales presentes de EH BILDU y el voto en contra de los 3 concejales presentes de EAJ/PNV, ACUERDA:

**PRIMERO.-** Aprobar inicialmente la modificación de la plantilla orgánica y de la relación de puestos de trabajo, en los términos que constan en el Anexo.

La creación del puesto de “ayudante de cultura” queda pendiente para una posterior modificación de la RPT un vez haya sido dotado presupuestariamente y se le haya asignado el perfil lingüístico de euskera que le corresponde.

**SEGUNDO.-** Publicar el acuerdo en el BOP, por plazo de 15 días hábiles, al objeto de que los interesados puedan examinarlo y presentar las reclamaciones que consideren oportunas, ante el Ayuntamiento Pleno. Asimismo, se publicará en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en su sitio web.

El acuerdo se considerará definitivamente aprobado si durante el citado plazo no se presentan reclamaciones, a cuyo efecto la Alcaldía elevará el acuerdo a definitivo y ordenará su publicación en el Boletín Oficial de la Provincia.

En el caso de que se presenten reclamaciones se elevará, en el plazo de un mes, al Ayuntamiento Pleno, propuesta de estimación o desestimación de las mismas y de aprobación definitiva de la modificación de la plantilla orgánica y de la relación de puestos de trabajo.

## **5.- APROBACIÓN DEL PLAN ECONÓMICO FINANCIERO PARA EL PERÍODO 2025-2026**

Con ocasión de la aprobación de la liquidación del presupuesto del ejercicio 2024, se informó por la intervención municipal que el mismo incumplía el objetivo de estabilidad presupuestaria (como consecuencia de la utilización de remanente de tesorería) y de la regla del gasto.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 5 de la Norma Foral 1/2013, de 8 de febrero, por la que se desarrolla la competencia de tutela financiera en materia de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera de las entidades locales de Gipuzkoa, se debe aprobar por el Pleno de la Corporación un plan económico financiero con una proyección temporal para alcanzar en el año en curso y el siguiente el cumplimiento de las reglas fiscales.

Visto el proyecto de plan económico financiero elaborado por los servicios económicos.

Visto el informe emitido por la secretaría municipal.

Visto el informe emitido por la intervención municipal.

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Organización y Hacienda; y con el voto favorable de los 6 concejales presentes de EH BILDU y el voto en contra de los 3 concejales presentes de EAJ/PNV, el Pleno ACUERDA:

**2024/04/30  
Ez Ohiko Osoko bilkura  
Pleno Extraordinaria**

**PRIMERO.-** Aprobar el plan económico financiero del ayuntamiento para los ejercicios 2025/2026, elaborado por los servicios económicos y que obra en expediente.

**SEGUNDO.-** Remitir el plan económico-financiero a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su seguimiento

**TERCERO.-** Proceder a su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 5 bis.3 in fine de la Norma Foral 1/2013, de 8 de febrero, por la que se desarrolla la competencia de tutela financiera en materia de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera de las entidades locales de Gipuzkoa.

**EXPLICACIÓN DE VOTO:**

Josu Ezkurdia manifiesta que en su día su grupo votó en contra de los presupuestos porque el nivel de inversión previsto en los mismos era muy bajo, que su grupo cree que el Ayuntamiento ha de hacer una apuesta por las inversiones para sacar adelante Eskoriatza; y que con el Plan que se presenta no se van a poder hacer muchas inversiones. Por ello, termina diciendo, su grupo votará en contra del Plan.

**6.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

Maite Uribe informa que un/a vecino/a se le ha quejado porque al parecer no se ha cortado la hierba y adecentado la zona de Atxorrotx y este próximo domingo se celebra el día.

El Alcalde le informa que esta misma mañana se han llevado a cabo dichos trabajos.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:14 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**

2024/04/30

**Ez Ohiko Osoko bilkura**  
Pleno Extraordinaria